4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteak akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedienteak onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
22/12/2023	B2023001591	HEMEN KLIMA S.L.	KIROLDEGIKO MANTENUAN ERABILITAKO MATERIALA: 11/12/2023	99,81
22/12/2023	B2023001592	HEMEN KLIMA S.L.	KIROLDEGIKO MANTENUAN ERABILITAKO MATERIALA	649,20
30/12/2023	000218	AEFISPORT S.L.	ANALITIKAK: 2023-12-30	1.236,62
31/12/2023	2023/F23/2237	BPXPORT XXI,S.L.U.	HARRERA ZERBITZUA- ABENDUA 2023	5.718,50
31/12/2023	2023/F23/2235	BPXPORT XXI,S.L.U.	GARBIKETA ZERBITZUA - ABENDUA 2023	11.588,48
31/12/2023	2023/F23/2236	BPXPORT XXI,S.L.U.	ADMINIST-ADMINISTRAZIO ZERBITZUA-ABENDUA 2023	6.896,00
31/12/2023	2023/F23/2238	BPXPORT XXI,S.L.U.	MANTENU ZERBITZUA-ABENDUA	9.741,33
31/12/2023	2023/F23/2239	BPXPORT XXI,S.L.U.	SOROSPEN ZERBITZUA - ABENDUA 2023	10.875,13
10/11/2023	2375005455	TECHNOGYM TRADING S.A.	MANTENU KONTRATUA (2023/11/01 - 2023/11/30)	695,75
12/12/2023	2375005761	TECHNOGYM TRADING S.A.	MANTENU KONTRATUA (2023/12/01 - 2023/12/31)	695,75
				48.196,57

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, kiroldegiko zerbitzuaren kontratua. Kontratu



honek lehenatasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Lehendakariak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

B24/0001 KIROL PATRONATUKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA

AURREKARIAK

2024ko urtarrillaren 12an kontu-hartzaileak honako erreparatu orria jakinarazi dit (14/2023)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak eta diru laguntzen legeak dioena betetzen ez duten laguntzak onartu direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
22/12/2023	B2023001591	HEMEN KLIMA S.L.	KIROLDEGIKO MANTENUAN ERABILITAKO MATERIALA: 11/12/2023	99,81
22/12/2023	B2023001592	HEMEN KLIMA S.L.	KIROLDEGIKO MANTENUAN ERABILITAKO MATERIALA	649,20
30/12/2023	000218	AEFISPORT S.L.	ANALITIKAK: 2023-12-30	1.236,62
31/12/2023	2023/F23/2237	BPXPORT XXI,S.L.U.	HARRERA ZERBITZUA- ABENDUA 2023	5.718,50
31/12/2023	2023/F23/2235	BPXPORT XXI,S.L.U.	GARBIKETA ZERBITZUA - ABENDUA 2023	11.588,48
31/12/2023	2023/F23/2236	BPXPORT XXI,S.L.U.	ADMINIST-ADMINISTRAZIO ZERBITZUA-ABENDUA 2023	6.896,00
31/12/2023	2023/F23/2238	BPXPORT XXI,S.L.U.	MANTENU ZERBITZUA-ABENDUA 2023	9.741,33
31/12/2023	2023/F23/2239	BPXPORT XXI,S.L.U.	SOROSPEN ZERBITZUA - ABENDUA 2023	10.875,13
10/11/2023	2375005455	TECHNOGYM TRADING S.A.	MANTENU KONTRATUA (2023/11/01 - 2023/11/30)	695,75
12/12/2023	2375005761	TECHNOGYM TRADING S.A.	MANTENU KONTRATUA (2023/12/01 - 2023/12/31)	695,75
				48.196,57

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

LEHENDAKARIA



KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (15/2023):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaia Kirol Patronatuko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

		Kontratua		amaitu
BPXPORT S.L.	Kiroldegiko zerbitzua	12/09/2012	2+2	12/09/2016
HEMEN KLIMA	Aireztatzea mantenua	23/11/2012	1	23/11/2013
SERCONTEN	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
SABICO	Alarma zerbitzua	11/05/2016	1	11/05/2017
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
AEFISPORT S.L.	Laborategiko azterketak			
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
- 6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.



" 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako mankomunitatei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtszko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzun die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.



Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzakako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

13. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatatu behar dira, eta espedientearen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

14. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

15. Aipatutako 70.3 artikuluan c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientearen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaitzak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientearen onartu aurretik zuzendu beharko dira.



Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
06/02/2024	MEE 5-2024	BPXPORT XXI,SLU	MASAJE ZERBITZUA (ABENDUA 2023)	1.267,75
				1.267,75

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, kiroldegiko zerbitzuaren kontratua. Kontratu honek lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Lehendakariak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

B24/0004 KIROL PATRONATUKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA

AURREKARIAK

2024ko otsailaren 9an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (15/2023)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
06/02/2024	MEE 5-2024	BPXPORT XXI,SLU	MASAJE ZERBITZUA (ABENDUA 2023)	1.267,75
				1.267,75

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

LEHENDAKARIA



Lehendakariak erreparatu orri berrizko azalpenak eta hauen ebazpenak eta lehendakariaren ebazpenak ordainketen aginduen berri eman du.

Une honetan iritsi da Itziar Etxabe Etxabe bilerara.

3.2.- 2023KO URTARRILAREN 1ARI DAGOKION ZUMAIKO UDAL BIZTANLEAREN KOPURUAREN BERRI EMATEA.

Lehendakariak Udal biztanlearen kopuruaren berri eman du, 10211 biztanle genituela 2023ko urtarrilaren 1ean azaldu du. Bestalde 2023ko datuak eman ditu jaiotza kopurua, heriotz kopurua eta abar.

3.3.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Lehendakariak alkate ebazpenak berri eman du.

4.- MOZIOAK.

4.1.- 2024KO MARTXOAREN 8RAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA

Lehendakariak azaldu du adierazpen hau atzera botatzen dutela. Bestalde beste bat aurkeztzen dutela Euskal Sozialistekin batera eta EAJ-PNVkin adostu dutela adierazpen hau bi zatitan bozkatzea.



Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Baina ez dira atzokoak krisi honi erantzun nahi dioten mugimendu eta ekimenak. Hala ere nabarmendu nahi dugu, pasa den Azaroan, Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa ardatz, Euskal Herrian, Greba Feminista Orokorra aitzindaria izan dugula. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitzeke garaia da. Gure herrian ere lanketa sakona egin genuen eta bi dimentsiotan ardaztu ziren aldarrikapenak. Alde batetik eremu pribatuan, emakumeak familia eremuan bereziki egindako lan ordaindugabea ikusaraziz eta bestetik feminizatutako eremuetan egindako lan ordaindu prekarioa salatuz.

Argi geratu zen herritar guztien bizitzek ez dutela berdin balio gure herrietan, eta emakumeen gainean erortzen dela zaintzen lan karga gehiena. Honek dakarren ondorioetako bat, feminismoetatik izendatutako lanaldi bikoitz edo hirukoitzak dira, beste gauza batzuetan emakumeei haien denbora eskaintzeko aukera kenduz, izan lana ordaindua, militantzia politiko soziala, etab. Hau da, boterea zentzu zabalean eta gaitasun politikoak sortzen dituzten alor horietan guztietan egoteko aukera murrizten zaie emakumeei. Honen eraginez, denboraren banaketa desparekoak gertatzen jarraitzen dute eta emakumeek zaintzen ematen duten denbora horretan lan hauetatik ardurarik hartzen ez duten gizonak boterea metatzen jarraitzen dute.



Egoera honen kontziente izan behar dugu eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeak boteretzeraz ere eraman beharko lukete. Horretarako ezinbestekoa da Gobernantza Feminista aurrera eramatea. Gobernantza Feminista berdintasun politiketan historikoki kokatuta izan da, Berdintasun Planen zutoinetako bat bezala eta honi Gobernu Ona esan zio. Egiteko moduei, egiten denari baina gehiago begiratzean datza. Demokratizazio prozesu bat da oro har, lehenetsunak definitzeko beste begirada bat; jarduteko eta lan egiteko prozeduretan aldaketa. Gobernantza feministari buruz ari garenean lidergo transformatzaile bati buruz ari gara eta beharrezkoa da ikuspegi feminista txertatzea aurrera eraman nahi dugun prozesu subiranistan.

Garrantzia eman behar diogu publiko eta komunitarioaren arteko harremanei, elkarrekin sortzen diren bidegurutze berri eta ardura partekatuei. Ezin dugu ahaztu komunitatea ez dela norbanakoen batuketa soil bat, lurralde batean bizi diren eta menderakuntza sistemak sortzen dituzten eta bizi dituzten izaki taldeen multzoa baizik. Komuna kudeatzeko erantzunkidetasun behar dugu beraz eta horretarako argi izan behar dugu politika bizitzaren eremu guztietan artikulatzen dela. Beraz, zeharkakotasun erradikal bat martxan jarri behar dugu. Hau da, egestura estankokak apurtu behar ditugu eta sail ezberdinen artean proiektu konpartituak eraiki eta kudeatu behar ditugu. Beharizan nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketa-guneak bultzatu eta indartuz.

Horregatik guztiagatik, Zumaia Udalak honako hau erabaki du:

- Mugimendu Feministarekin batera Herri Akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan aurrera eramatea, Zaintza mahaietan besteak beste.
- Berdintasun zein Barne Planen bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen boteretzea sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea.
- Mugimendu Feministak herrian bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.
- Mugimendu Feministak bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko egindako eta egiten duen ekarpena eta lana aitortzea.
- Emakumeen tokiko memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta talde feministetarako.
- Emakumeen gizarte-ikusgarritasuna sustatzea, batez ere adineko emakumeena, aniztasun osoan, eta edadismoari aurre egitea, gizartean emakumeen zahartzaroari buruz nagusi den irudia, adinean eta estereotipo interseksionalizetan oinarritutakoa, gaindituz.
- Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxista non eta nola erabiltzen den ikertzea eta horren inguruan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.

Ondoren Maitek aurkeztutako mozioa irakurri du.

Lehen puntua irakurri ondoren:

-Mugimendu Feministarekin batera Herri Akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan aurrera eramatea, Zaintza mahaietan besteak beste.

Puntu honetan Duñikeri hitza eman zaio, eta honako hau azaldu du:

"Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen da; Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1977ko abenduaren 16an onartu zuen, emakumeen aurkako diskriminazio mota



oro ezabatzeko, emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta gizartean erabat parte har dezaten lortzeko.

Urteak aurrera doaz, eta egun honen aldarrikapena beharrezkoa da oraindik gizarte osoarentzat, mugimendu feministentzat eta talde politikoentzat.

Uste dut merezi duela berdintasun-politiketan eragiten jarraitzea, benetako aurrerapenak ekarriko dituzten akordioak eraikitzen.

Talde politikoetatik desberdintasun nabarmenak dituzten ikuspegiak ematen ditugu, eta horregatik talde sozialista honek batzen gaituzten puntuak bilatzearen alde egiten du, desberdintasunak beste egun baterako utziz.

Badakit alderdi abertzaleek sozialistek baino modu mugatuagoan defendatzen dutela berdintasuna lurraldetuta, eta soziaistek estatu mailan lantzen baitugu, baina ez dut uste ezberdintasun horrek oztopo izan behar duenik martxoaren 8rako Zumaian akordio bat lortzeko.

Jakin badakit, halaber, alderdi politikoaren artean zer desberdintasun dauden aurre egin behar diegun erronkei konponbideak emateko. Baina uste dut desberdintasun horiek proiektuz proiektu mugatu behar ditugula, eta gure jarrerak argudiatuz eman behar ditugula.

Alderdi soziaistatik ez dugu bat egiten herri akordioak esaten ditun guztiekin, baino kinu bat egingo diogu gaurko egunean akordia billaren gabiltzanean emankorrak ere izan behar garelako.

Berdintasun-politiken ukatzaileen helburua da oraindik ere emakumeen diskriminazioa murrizteko hartutako ekimenak gauzatzea, eta, horregatik, aurrera egin nahi dugunon batasuna oso garrantzitsua dela iruditzen zaigulako.

Moziok emakumeen ahalduntzearen garrantziari egiten dio erreferentzia, zainketen eta zaintza horien kudeaketa hobez dezaketen neurrien jarraipenari. Halaber, aintzat hartzen dugu mugimendu feministatik egiten den lana, bai eta memoria historikotik Zumaian erreferente izan diren emakumeen existentzia balioesteko beharra ere, eta adineko emakumeen ahalduntzerako eta berdintasunerako neurriak bultzatzen jarraitzeko beharra nabarmentzen dugu.

Era berean, alderdi sozialistak zumaiar guztiak animatu nahi ditu martxoaren 8an herrian antolatutako ekitaldietan parte hartzera.

Eskerrik asko!!

Ondoren lehendakariak hitza eman dio Xabier Odriozolari eta beraien bozkaren arrazoiak azaldu du, honakoa esanez:

“Arratsalde on!

EAJ-PNV Udal Taldean, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna eta beraz feminismoaren kausa sinisten dugu. Uste dugu gai honek, emakumeen aurkako indarkeriak bezala, denon indarrak metatzea eta denon adostasuna eskatzen dutela. Horregaitik bai azaroaren 25-an eta bai oraingoan ere Alderdi ezberdinak batzen gaituen aldarrikapen bat erdiezten saiatu gara.

Gaur Plenora ekartzen zaigun adierazpen honetan esaten eta eskatzen diren zenbait gauza ezin ditugu onartu. Uste dugu EH-Bildu kausa feministaz baliatzen ari dela zaintzaren euskal sistemaren aurkako jarrera politiko partidista bat defendatzeko, eta hori ez da onargarria.



Bai zioen azalpenean, bai adierazpenaren lehenengo puntuan babestea nahi den Herri Akordioan, egungo zainketen euskal sistemaren aurkako eraso zuzena eta baieztapen faltsuak egiten dira, eta ezin dugu bat etorri hauekin, besteak beste, gezurra direlako. Hori dela eta, adierazpenaren puntu bakoitza banan-banan bozkatzea eskatzen dugu, bai eta adierazpenaren aurretik dagoen zioen azalpena ere.

Izan ere, esan dugun bezala, EAJ-PNV emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde dago eta berdintasun hori errespetatzen ez den esparru eta sektore guztietan aurreapenak lortzeko lanean aritu da ari da eta arituko da, baina ezin dugu onartu kausa justu hori konfrontaziora garamatzen irizpide alderdikoak aldarrikatzeko erabiltzea. Borroka horretan denok elkarrekin joan behar dugu eta akordioak bilatu behar dira ez akordio bideak oztopatu.

Beraz, Konpromezu horiek banan bana bozkatzea eskatzen dugu,

1.puntuan zer eskatzen da.

“Mugimendu Feministarekin batera Herri Akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan aurrera eramatea, Zaintza mahaietan besteak beste.”

“Herri Akordioa”rekin ez dugu bat egiten, ezin bai dugu bat egin egungo zaintza ereduari buruz dokumentu horretan esaten direnekin ez eta aldarrikatzen den ereduarekin.

Esan dugun bezala ez gaude ados, ezta ere, deklarazioaren hasierako xede eta azalpenekin; izan ere joan zen azaroan 29ko plenoan, Zaintzaren eta Laguntzaren Nazioarteko Egunaren harira EAJ-PNV Udal Taldeak aurkeztu genuen mozioan defendatu genuenarekin kontraesanak dituelako.

Lehendakariak, eskerrak eman dizio Xabierri.

Bestalde azaldu du desiragarriena izango litzakeela mozioak aurkeztu aurretik saiatzeari aurrez ezertzen eta puntuak adosten.

Ondoren bozka eskatu du:

Aldeko botoak: 11 boto (10 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 5 boto (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: EH Bilduk eta Euskal Sozialistak aurkeztutako moziaren lehenengo puntua onartzen da.

Ondoren Maitek gainontzeko puntuak irakurri ditu.

“-Berdintasun zein Barne Planen bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen boteretzeari sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea.

-Mugimendu Feministak herrian bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.

-Mugimendu Feministak bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko egindako eta egiten duen ekarpena eta lana aitortzea.

-Emakumeen tokiko memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta talde feministetaraino.

-Emakumeen gizarte-ikusgarritasuna sustatzea, batez ere adineko emakumeena,



aniztasun osoan, eta edadismoari aurre egitea, gizartean emakumeen zahartzaroari buruz nagusi den irudia, adinean eta estereotipo intersektionalizetan oinarritutakoa gaindituz.

-Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxista non eta nota erabiltzen den ikertzea eta horren inguruan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko."

Ondoren berriz Lehendakariak hitza eman dio, Xabier Odriozolari, ondorengoa azalduz:

EAJ-PNV Udal Taldeak bat egiten dugu EUDELeK bere adierazpenean esaten denarekin.

Adierazpen honek horrela dio:

"Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekarietatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeke eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita."

Lehendakariak eskerrak eman dizkio Xabierri eta ondoren hitza eman dio Duñikeri.

Bai, pixka bat irudikatzeke zein dan egoera politikoa. Duñikek azaldu du adibidez EH Bilduk Donostin onartu duela transakzio bat eginda Eudelek aurkeztutako mozioa eta berak hori nahi zuela aldarrikatzea, denok esfortzu bat egin eta denok zerbait utzi bidean. Berak onartu du lehenengo puntua, ez gustora onartu arren baino bai ikusten duelako EH Bilduk ere egin duela bere esfortzua. Bere ustetan garrantzitsua dela indarrak batzea gai honetan eta ez partidizatzea eta alderdi kontua irudikatzea.

Lehendakariak erantzun dio, azken unean ibili beharrean orekak egiten aurrez adostu behar direla gaiak eta EH Bildu kexatzen dela esfortzua denen partetik behar dela eta beraiek Eudelen partetik ez dutela esfortzu hori ikusi eta EH Bildu gelditu zela kanpoan.



Ondoren bozka eskatu du.

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU; 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Martxoaren 8ko adierazpena onartua gelditzen da.

4.2.- ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIAK EGINDAKO EUSKADIKO TENTSIOPEKO EREMUEI BURUZKO TXOSTENAREN ONDORIOAREN HARIRA MOZIOA.

Lehendakariak irakurri du Euskal Sozialistak eta EH Bilduk aurkeztutako mozia.

Duñike Agirrezabalaga Ugartek, Euskal Sozialistak taldeko ordezkariak, eta Iñaki Ostolaza Esnal, EHBilduren ordezkari bezala, honako mozio hau aurkeztu dute osoko bilkuran tratatzeko.

Zumaiarrek etxebizitza eskuratzea da gaur egun udalerriko arazo larrienetako bat. Etxebizitzaren prezioak oso altuak dira eta goranzko joerak jarraitzen du.

EAEEn 2015ean onartutako Etxebizitzaren Legea dugu, eta 2023an Espainiako kongresuan onartutako Etxebizitzaren lege berria ere badugu. Azken horrek alokairuaren prezioak murgatzeko aukera ematen du, tarteko beste neurri batzuen artean.

Baina lege honek jasotzen dituen neurriak aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da Zumaia "tentsiopeko eremu" izendatzea.

Legeak berak ezartzen du tentsiopeko eremu izendatzeko zein baldintza bete behar diren.
-Azken bost urteetan etxebizitzaren prezioa KPlaren igoera baino 3 puntu handiagoa izatea.
-Etxebizitza ordaintzeko ahalegin ekonomikoak egoiliarren diru sarreraren %30a gainditzea.

Eremu tentsionatuaren izendapena formalizatzeko, Zumaia udalak eskaera formala egin behar dio Eusko Jaurlaritzari, eta horretarako, justifikazio memoria bat, etxebizitzaren merkatuari buruzko txosten bat eta hiru urterako hiri bizitzaren plan bat aurkeztu behar ditu arazoari aurre egiteko.

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzak baldintza horiek betetzen dituzten EAeko udalerrien zerrenda argitaratu du, eta horietako bat Zumaia dela adierazi du.

Lege honek aukera paregabea, eskaini tzen digu etxebizitza eskuratzeko arazoari irtenbideak emateko.

Horregatik guztiagatik, honako MOZIOA aurkeztu da:

-Zumaia udalak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako EAeko tentsiopeko eremuei buruzko txostenaren ondorioen harira, onartzen du Zumaia udalerrira osoa dela tentsiopean dagoena, eta konpromisoa hartzen du Eusko Jaurlaritzari Zumaia tentsiopeko eremuaren izendapena formalizatzeko eskaera aurkezteko, eta konpromisoa hartzen du legez eskatutako memoria eta dokumentazioa aurkezteko, 2025ean deklarazio horren ondorioak indarrean egon daitezen.



-Zumaia udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ez dezala etxebizitzaren legearen garapena oztopatu eta erraztu dezala eremu tentsionatuen izendapena.

Adierazpena irakurri ondoren, Lehendakariak hitza eman dio Xabier Odriozolari.

Xabier azaldu du abstenitu egingo direla eta honako hau azaldu du:

Uste dugu udalbatza honetako batzarkide guztiok ados gaudela zumaiaarren arazo nagusienetako bat etxebizitza eskuratzea dela esaten denean, udalerrian dauden etxebizitza libreen eta alokairuen prezioak oso altuak direlako.

Beraz, alokairuen prezioa kontrolatzea eta jaitea positibotzat jotzen dugu gure taldetik.

Mozio honi gure botoa abstentzioa izango da ondorengo arrazoiengatik:

Lehenik eta behin gai hau Osoko Bilkuran sartu aurretik hainbat hirigintza batzordeetan eztabaidatu eta joratu behar dela uste dugu.

Memoria bat, Etxebizitzaren merkatuari buruzko txosten bat eta hiru urterako herri-bizitzaren plan bat egitea proposatzen dugu, ETXEBIZITZA BULEGOAK ETA ETXEBIZITZA TEKNIKARIAK DITUZTEN DATUEKIN, Euskal Etxebizitza Behatokiaren datuez gain.

Bestalde, ESPAINIAKO LEGEARI dagokionez, Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoak, Kataluniakoak egin zuen bezala, errekurtsio bat sartu dio lege honi konstituzio-kontrakotasunagatik.

Legea, gaur egun dagoen bezala, eraginkorra izango ote den zalantzak ditugu. Izan ere, duela urtebete estatuko legea onartu zenetik, etxejabeek OHIKO etxebizitzak eskaintzetik, SASOIKO etxebizitzak eskaintzera igarotzeko joera ikusi da eta SASOIKO alokairu hauek ez ditu lege honek bere baitan hartzen.

Amaitzeko, aipamen bat egin nahiko genuke Euskal Etxebizitza Politikei, aitzindariak direlako materia honetan. Hala nola:

- Estatuko etxebizitza publiko guztien % 35 Euskadin dago, nahiz eta EAE-ko populazioa estatuaren %4,4 koa izan.
- "Bizigune" programaren bitartez, Euskadik alokairurako 7200 etxebizitza huts mobilizatu ditu.
- Martxan jarri den "Emantzipa" programak, 25-29 bitartetako gazteei 300 euroko laguntza eman ahalko die hilero 2 urtetan.

Eta ezin ahaztu, Zumaian EAJ-ren UDAL GOBERNUEN GIDARITZAPEAN ekimen publikotik 400 etxebizitza baino gehiago sustatu zirela herrian. Etxebizitza kooperatibak sustatu ziren eta emantzipazio beka martxan jarri zen.

Hala ere, ez gaude gustura eta anbizioz heldu behar diogu gai honi etxebizitza publiko gehiago eginez eta alokairuen prezioak erregulatzeko bide efizienteak bilatuz.

Xabierrek bere azalpena eman ondoren, Lehendakariak eskerrak eman dizkio eta ondoren Duñikeri hitza eman dio.

Testuan esaten dugun bezala, mozioren arabera zumaiaarrek etxebizitza eskuratzea da herri honetako arazo larrienetako bat.

Zumaia etxebizitzaren EAEko behatokiaren arabera, 2021ean familia-errenta erabilgarria 44.972 €-koa zen, eta alokairuaren batez besteko errenta 724 €-koa zen hilean.

Espainiako Kongresuan 2023an onartutako Etxebizitzaren Lege berriak alokairuaren prezioak



mugatzeko aukera ematen du, beste neurri batzuez gain.

Zumaiaiko sozialistok badakigu tentsiopeko eremuen deklarazio hori ez dela arazoaren behin betiko konponbidea, baina neurri bat gehiago da Zumaiaiko etxebizitzaren alokairuen prezioaren neurrigabeko igoera geldiarazteko, hala nola gazteentzako etxebizitzak alokatzeko laguntzak.

Auzitegietan ebatziko den eskumen-eztabaida batetik urrun, legez kanpokoak ez diren neurrien aplikazioa aurreratu behar dugu, eraginkorrak izan baitaitezke.

Bitartean, Zumaian, eskaera horretaz gain, kudea daitezkeen lurzoruak sortzeko gaitasuna bideratu behar dugu, merke prezioetako etxebizitzaren beharrari irtenbidea emateko, etxebizitza babestuak baino ezin baitira izan. Orain planifikatzen jarraitu behar da, etxebizitzak ahalik eta lasterren eraiki ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren laguntzarekin babestuak izateko.

Mozioa alderdi sozialistak aurkeztu zuen, eta puntu bat gehiago gehitzea negoziatu ondoren, EHBildurekin batera aurkeztu dugu.

Egia da hauteskunde-aro baten aurrean gaudela euskal komunitatean, eta mozioan eskatzen dena da, baita ere, urrengo Eusko Jaurlaritzari eskatzea etxebizitza-politikak garatzen jarrai dezala eta ez dezala oztopatu tensionatutako eremuen izendapena kudeaketa.

Etxebizitzaren alokairua kontrolatik kanpo dago Zumaian, eta arazoak sortzen ari dira; horregatik, neurriak hartzea behartuta gaude.

Pozten naiz mozioa aterako delako, eta Udal gisa lanean ari delako, deklarazio hori izapidetu ahal izateko behar den informazioarekin dokumentazioa prestatzeko.

Lehendakariak eskerrak eman dizkio Duñikeri.

Ondoren azaldu du beraien bozka baiezkoa izango dela gauza guztiekin ados daudelako. Baita ere, gai honen inguruko prozedura martxan jarrita dagoela, txostena ere badutela aurreko legealdian egina.

Beraien aldetik eskaera nagusia dela Jaurlaritzari eskatzea lege honen garapena ez oztopatzea helegite bat jarritz. Bere ustetan ez dagoela arazo juridiko bat, arrazoi politiko bat, arrazoi ideologiko bat azken finean.

Lehendakariak hitza eman dio Iker Mardarasi, Ikerrek azaldu du, EAJtak ez duela helegiterik jarri, helegitea Eusko Jaurlaritzak jarri duela, bere zerbitzu juridikoen oinarri eta aholkuekin eta helegitea jartzeak ez duela suposatzen legea oztopatzea. Bestalde esan du legea indarrean dagoela eta martxan dagoela. Baita ere, azaldu du Eusko Jaurlaritzak 6 hilabetez egon dela negoziatzen, konponbide batera heltzeko eta ez direla heldu. Beraien ustez autogobernuaren defentsa bat egin dutela.

Lehendakariak ondoren bere iritzia eman du esanez, gobernuan dauden alderdiak erabakitzen dutela helegitea jarri edo ez, eta jakinean dagoela EAJ helegitea jartzearen alde dagoela, impulso politiko baten ondorioz. Ez da kausa etereo bat.

Lege honek onura asko ekarri ditzazkela eta irtenbide bat eman behar diogula etxebizitza arazoari.

Ondoren lehendakariak hitza eman dio Xabierri eta Xabierrek azaldu du ez dela EAJ bakarrik helegitea jartzearen aldekoa beste lau komunitate ere badaudela uste horrekin.



Lehendakariak eskerrak eman dizkio Xabierri, eta adierazi du, guk EAera begiratu behar dugula eta bere ustez helegite bat jartzea 2015etik garatzen ari dan legeari oztopo bat jartzea dela.

Lehendakarika ondoren bozka eskatu du.

Aldeko botoak: 11 boto (10 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 5 boto (EAJ-PNV)

ERABAKIA: Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako Euskadiko tentsiopeko eremuei buruzko txostenaren ondorioaren harira aurkeztutako mozioa onartzen da.

5.- ESKARI – GALDERAK

Iker Mardarasek eskatu du pasa den azaroaren 30ean huelga feminista egon zela eta udala eta eraikin publikoak itxi zirela honen harira txosten bat eskatu zutela azalpenak eskatuz eta ez dutela jaso. Erantzuna ez jasotzean eskaera bat egin ziotela idazkariari. Asierrek erantzun dio alkateak dituela eskumenak eta ez ziotela eskatu behar idazkariari, baina txostena prestatuta dagoela eta laster izango dutela. Bestalde Lehendakariak azaldu du mozioak talde politikoen artean eztabaidatu behar direla.

Eta besterik gabe ohiko osoko bilkura bukatutzat ematen dut. Eskerrik asko.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria